

ISPILUARI BEGIRA

Haur eta gurasoen tailerra



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Laskorain ikastola, LH 2. Maila
2020ko urtarrila

UEMA

ISPILUARI BEGIRA haur eta helduen tailerra prestatu eta egin dugu Tolosako Laskorain ikastolan, 2020ko urtarrilaren 10, 15, 24 eta 31n, LH2 mailako ikasleekin. UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta Laskorain ikastolak elkarlanean antolatu dute ordu eta erdiko saioa. UEMA garatzen ari den HEDATU hezkuntza proiektuaren baitan kokatzen da Ispiluari Begira tailerra; Laskorain ikastolak parte hartzen du hezkuntza proiektuan HHTik hasi eta Batxilergora bitarteko ikasleekin lantzen diren unitate didaktiko eta tailer osagarri ezberdinen bitartez. Saio honen helburua izan da arnasguneen garrantziaz ohartzea, eta gurasoek hizkuntzaren garapenean duten eragina ikustea. Bestalde, tailerraren bidez bilatu nahi izan da ume zein helduek hausnartzea beraien hizkuntza hautuez zein ohiturez eta aldaketarako pausoa ematea.

Saioa LH2ko lau geletan egin da, eta parte hartzea aldatu da gela batetik bestera; baita gurasoen parte hartzearen arabera batzuetan eta besteetan erabilitako metodologia ere. Saio bakoitzean egin dugun lanketa gelaz gela egindakoaren laburpenean aipatuko badugu ere, parte hartu duten haur eta guraso kopurua honakoa izan da:

2A GELAN: 25 haur eta 11 guraso.

2B GELAN: 25 haur eta 3 guraso.

2C GELAN: 25 haur eta 2 guraso.

2D GELAN: 24 haur eta 5 guraso.

Tailer ezberdinak UEMAko bi teknikaririk gidatu dituzte: Goizane Aranak eta Maier Ugartemendiak.

Jarraian saioan zehar landutako eta ateratako emaitzak jaso dira.

ISPILUARI BEGIRA TAILERRA 2A GELAN

LEHEN ATALA: TXOKOAK

Saioak bi atal izan ditu. Lehenengoan haurrak eta gurasoak bananduta egon dira, eta bigarren zatian denok elkarrekin egin dugu lanketa. Saioaren lehen atalean, haurrekin eta gurasoekin ordubeteko lanketa egin dugu. Batetik, haurrei egunerokoan ohikoak diren hiru gune eraman dizkiegu muraletan marraztuta eta horietan zein hizkuntzatan aritzen diren adierazi dute koloreen bidez.

Parte-hartzaile bakoitzari etxeko, parkeko zein eskolako eguneroko egoera ezberdinak irudikatzen dituen marrazki bana aukeratzeko eskatu zaio eta marrazki horretan azaltzen diren pertsonak margotzeko hitz egiten duten hizkuntzaren arabera.

Honako koloreak erabili dituzte: urdina elkarrizketa euskaraz bada, horia gaztelaniaz bada, berdea gaztelaniaz eta euskaraz bada eta gorria beste hizkuntza batean bada.



Bitartean gurasoek beste lanketa bat egin dute, teorikoagoa. Eurekin hainbat arlo landu ditugu: arnaguneak, herri euskaldunen zein erdaldunen garapen soziolinguistikoa, arnaguneetan hizkuntzaren gorabeherak aztertzeko gakoak, Tolosako eta Tolosaldeko datu soziolinguistikoak eta horien irakurketa, gurasoen hizkuntza-ekologia dekalogoak... Eta azkenik, gurasoei eskatu zaie hausnarketa egiteko norbere hizkuntza hautuez eta jardunaz.

BIGARREN ATALA: AURKEZPENA GURASOEI

Haurrek egindako lanaren aurkezpena egin diete gurasoei eta ondoren, ateratako emaitzen inguruko ondorioak aurkeztu dituzte UEMako teknikariek eta aldaketarako pausoa ematera animatu dituzte gurasoak.

ETXEA



IKASTOLA / JOLASTOKIA



PARKEA



Behin muralen aurkezpena eginda, dinamizatzaileek azalpen labur bat eman dute hizkuntza transmisioaz eta erreferenteen garrantziaz. Erreferenterik esanguratsuenak helduak direla esan zaie eta ezin dela haurrei euskaraz hitz egiteko eskatu ondoren helduek ez badute egiten, eredu izatea dela gakoa, egiten duguna errepikatu baino ez dutela egiten haurrek..

Erreferente izatearen garrantziaz ohartuta, euskararen alde pauso bat aurrera egiteko egin dezaketenaz hausnartzeko eskatu zaie. Konponbideak elkarrekin pentsatu behar izan dituzte eta haurrak beraiek izan dira konponbideak eman dituztenak.

Saioari amaiera emateko, elkarrekin kantu bat abestu dugu, Pirritx eta Porrotxen *“Ahoa bizi eta belarria prest beti”*.



ONDORIO NAGUSIAK eta ERRONKA

Eremu guztietan kolore nagusia urdina da: euskara. Batez ere ikastolan da nagusi kolore urdina, eta hortaz, euskararen erabilera nagusitzen da euskara ia bete-betean. Etxean ikusten dira pertsonak kolore horiz eta berdez margotuta, hau da, gaztelania eta gaztelania zein euskara nahastuta. Eta neurri txikiagoan bada ere pertsona horiak eta berderen bat ere badaude. Hortaz, ikastolako eremua da ikastolako ikasle hauen artean euskara gehien erabiltzen duten eremua, baina ikasle kopuru altua da eremu guztietan euskaraz bizi direnak.

Tolosako egoera soziolinguistiko orokorrarekin alderatuta, egoera oso ona da.

SAIOAREN BALORAZIOA

Haurrak gustura ikusi ditugu lanean eta oso argi adierazi dute zer den entzuten dutena egunean zehar. Gurasoen asistentzia eta parte hartzea ere nahikoa ona izan da, 25 ikasleren 11 guraso etorri baitira tailerrera, eta batez ere azpimarragarria izan baita euren parte hartzeko prestutasuna eta gogoia; gainera, etorri diren gurasoak nahikoa kontzientziatuak egon dira. Hortaz, saioaren balorazioa positiboa dela esan dezakegu, Tolosako egoeraren argazki bat ateratzeko eta gaiaren inguruan sentsibilizatzeko eta elkarrekin hausnartzeko balio izan du.

ISPILUARI BEGIRA TAILERRA 2B GELAN

LEHEN ATALA: TXOKOAK

Gela honetan, tailerrean parte hartzeko gurasoen izen ematea baxua izan denez, saioaren lehen atalean hurrekin bakarrik aritu gara lanean ordu betez. Saio honetan haurren egunerokoan ohikoak diren hiru gune eraman dizkiegu muraletan marraztuta eta horietan zein hizkuntzatan aritzen diren adierazi dute koloreen bidez.

Parte-hartzaile bakoitzari etxeko, parkeko zein eskolako eguneroko egoera ezberdinak irudikatzen dituen marrazki bana aukeratzeko eskatu zaio eta marrazki horretan azaltzen diren pertsonak margotzeko hitz egiten duten hizkuntzaren arabera.

Honako koloreak erabili dituzte: berdea elkarrizketa euskaraz bada, gorria gaztelaniaz bada, urdina gaztelaniaz eta euskaraz bada eta horia beste hizkuntza batean bada.



BIGARREN ATALA: AURKEZPENA GURASOEI

Haurrek egindako lanaren aurkezpena egin diete gurasoei eta ondoren, ateratako emaitzen inguruko ondorioak aurkeztu ditu UEMako teknikariak eta aldaketarako pausoa ematera animatu dituzte gurasoak.

Behin muralen aurkezpena eginda, dinamizatzaileak azalpen labur bat eman du hizkuntza



Eremu guztietan kolore nagusia berdea da, hau da, nagusi den hizkuntza euskara da. Ikastola da hurrek euskara gehien erabiltzen duten eremua. Etxean euskaraz gain, gaztelania eta beste hizkuntza batzuek ere badute presentzia. Eta ikastolatik atera eta aisi eremura joaten direnean gaztelania eta euskara nahasteko ohitura handiagoa dago. Beraz, ikastolan euskaraz aritzeko joera duten hurrek, bertatik ateratakoan beste hizkuntza ohitura batzuk dituztela ere ikus daiteke. Hortaz, aurrera begira ikastolan dituzten ohiturak eskola eremuarekin soilik ez lotzeko eta aisia ere euskaraz bizitzeko pausuak ematea garrantzitsua izan daiteke, ez dadin ikastola bihurtu euskarari lotutako eremu bakarra.

SAIOAREN BALORAZIOA

Haurrak gustura ikusi ditugu lanean eta oso argi adierazi dute zer den entzuten dutena egunean zehar. Gurasoen asistentzia nahikoa baxua izan da, 25 haur izan dira eta 3 guraso etorri dira aurkezpena ikustera. Dena dela, saioaren balorazioa positiboa dela esan dezakegu, nahiz eta guraso gehiago etorri izanak hobetu egingo lukeen emaitza; bereziki gurasoengan eragiteko tailerra baita honakoa. Dena dela, gelako haurren egoeraren argazki bat ateratzeko eta gaiaren inguruan sentsibilizatzeko eta elkarrekin hausnartzeko balio izan du.

ISPILUARI BEGIRA TAILERRA 2C GELAN

LEHEN ATALA: TXOKOAK

Gela honetan ere, gurasoen izen emate baxua dela eta, saioaren lehen atalean hurrekin bakarrik aritu gara lanean ordu betez. Saio honetan ere haurren egunerokoan ohikoak diren hiru gune eraman dizkiegu muraletan marraztuta eta horietan zein hizkuntzatan aritzen diren adierazi dute koloreen bidez.

Parte-hartzaile bakoitzari etxeko, parkeko zein eskolako eguneroko egoera ezberdinak irudikatzen dituen marrazki bana aukeratzeko eskatu zaio eta marrazki horretan azaltzen diren pertsonak margotzeko hitz egiten duten hizkuntzaren arabera.

Honako koloreak erabili dituzte: berdea elkarriketa euskaraz bada, gorria gaztelaniaz bada, urdina gaztelaniaz eta euskaraz bada eta horia beste hizkuntza batean bada.

BIGARREN ATALA: AURKEZPENA GURASOEI

Haurrek egindako lanaren aurkezpena egin diete gurasoei eta ondoren, ateratako emaitzen inguruko ondorioak aurkeztu ditu UEMAko teknikariak eta aldaketarako pausoa ematera animatu dituzte gurasoak.

Behin muralen aurkezpena eginda, dinamizatzailerak azalpen labur bat eman du hizkuntza transmisioaz eta erreferenteen garrantziaz. Erreferenterik esanguratsuenak helduak direla

esan zaie eta hortaz, euren egiten dutenak eragin zuzena duela haurren hizkuntza ohituretan ere.

Errenferente izatearen garrantziaz ohartuta, euskararen alde pauso bat aurrera egiteko egin dezaketenaz hausnartzeko eskatu zaie denei. Saioari amaiera emateko, elkarrekin kantu bat abestu dugu, Pirritx eta Porrotxen *“Ahoa bizi-bizi, belarri prest beti”*.



ONDORIO NAGUSIAK eta ERRONKA



Euskara da beste behin ere eremu guztietan nagusitu den hizkuntza, nahiz eta oraingoan urdin kolorearen presentzia nahikoa handia den; ikastolako eremuan eta batez ere parkekoan euskara eta gaztelaniaz nahastuta erabiltzeko joera dago. Gainera gaztelania eta beste hizkuntzak ere ageri dira parkean. Hortaz, euskararen presentzia areagotzea nahi badugu beharrezkoa izango da hizkuntza ohiturak aldatzea.

SAIOAREN BALORAZIOA

Haurrak gustura ikusi ditugu lanean eta oso argi adierazi dute zer den entzuten dutena egunean zehar. Gurasoen asistentzia baxua izan da, 25 haur izan dira eta 2 guraso etorri dira aurkezpena ikustera. Dena dela, saioaren balorazioa positiboa dela esan dezakegu, nahiz eta guraso gehiago etorri izanak hobetu egingo lukeen emaitza. Dena dela, egoeraren argazki bat ateratzeko eta gaiaren inguruan sentsibilizatzeko eta elkarrekin hausnartzeko balio izan du.

ISPILUARI BEGIRA TAILERRA 2D GELAN

LEHEN ATALA: TXOKOAK

Saioaren lehen atalean hurrekin bakarrik aritu gara lanean ordu betez, gurasoen izen emate baxua dela eta. Saio honetan haurren egunerokoan ohikoak diren hiru gune eraman dizkiegu muraletan marraztuta eta horietan zein hizkuntzatan aritzen diren adierazi dute koloreen bidez.

Parte-hartzaile bakoitzari etxeko, parkeko zein eskolako eguneroko egoera ezberdinak irudikatzen dituen marrazki bana aukeratzeko eskatu zaio eta marrazki horretan azaltzen diren pertsonak margotzeko hitz egiten duten hizkuntzaren arabera.

Honako koloreak erabili dituzte: berdea elkarrizketa euskaraz bada, gorria gaztelaniaz bada, urdina gaztelaniaz eta euskaraz bada eta horia beste hizkuntza batean bada.

BIGARREN ATALA: AURKEZPENA GURASOEI





Hurrek egindako lanaren aurkezpena egin diete gurasoei eta ondoren, ateratako emaitzen inguruko ondorioak aurkeztu ditu UEMako teknikariak eta aldaketarako pausoa ematera animatu dituzte gurasoak.

Behin muralen aurkezpena eginda, dinamizatzaileek azalpen labur bat eman dute hizkuntza transmisioaz eta erreferenteen garrantziaz. Erreferenterik esanguratsuenak helduak direla esan zaie eta eredu izatea dela gakoa, egiten duguna errepikatu baino ez dutela egiten hurrek.

Erreferente izatearen garrantziaz ohartuta, euskararen alde pauso bat aurrera egiteko egin dezaketenaz hausnartzeko eskatu zaie. Saioari amaiera emateko, elkarrekin kantu bat abestu dugu, Pirritx eta Porrotxen *“Ahoa bizi-bizi, belarri prest beti”*.



ONDORIO NAGUSIAK eta ERRONKA

Eremu guztietan nagusitzen den kolorea berdea da, hau da, euskara da nagusitzen den hizkuntzan. Etxeko eremuan gorri bat (gaztelania) eta bi urdin (euskara eta gaztelania) badaude ere, gainerako guztiak berdeak dira. Etxeko hizkuntza ohitura horiek gainerako eremuetan ere isla dute, eta ikastolan zein parkean ere erabat nagusi da euskara. Tolosako egoera soziolinguistiko orokorra baino egoera hobea da gela honetan ikus daitekeena, eta garrantzitsua izango da hizkuntza ohitura horiek mantentzen jarraitzeko haurrak zein helduak ahalduntzen jarraitzea.

SAIOAREN BALORAZIOA

Haurrak gustura ikusi ditugu lanean eta oso argi adierazi dute zer den entzuten dutena egunean zehar. Gurasoen asistentzia ez da oso altua izan, 24 haur izan dira eta 5 guraso etorri dira aurkezpena ikustera. Hala ere, etorri diren gurasoak nahikoa kontzientziatuak egon dira. Hortaz, saioaren balorazioa positiboa dela esan dezakegu, nahiz eta guraso gehiago etorri izanak hobetu egingo lukeen emaitza.